

GAKO EKONOMIKOAK

- NDFk gorantz berrikusi ditu aurreikuspen ekonomikoak mundu osoko ekonomiarako.
- Burtsak positiboan abiatu dira, makroekonomiaren tonu onak eta enpresen emaitzen boladak lagunduta.
- Seguruentzat jotzen diren bonuen interesaren igoera aipagarria (AEB, Alemania), eta Europako periferiakoen diferentzialak murriztea.
- Euroa sendotu egin da dolarrarekiko eta 1,25\$/eur-tik gora ere iritsi da.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

lazko urtea amaitu zenetik, munduko ekonomiak gero eta panorama adogearriagoa erakusten du. Hazkundearen dinamikak sendoa izen segitzen du AEBn, harrigarri indartsua eurogunean eta itxaropentsua Japonian. Txinak konfiantza-zantzuak ematen jarraitzen du bere "desazelerazio kontrolatuan" eta herrialde emergenteetako merkatuek hobekuntza erakusten dute aurreko bi urteei buruz. Hori da NDFk argitaratu berri dituen aurreikuspen ekonomikoek islatzen dutena, 2018 eta 2019rako munduko ekonomiaren hazkunde-espektatibak bi dezima jasota, %3,9raino (aurrekoa %3,7 zen). Ingurune horretan, hazkunde global irmoarekin, inflazioa oraindik ere moderatua izan arren, banku zentraleri begira jarrita daude begi guztiak, politika monetarioa normalizatzeko erabakiko duten prozesua nolakoa izango den ikusi nahian. AEBn, azpiko inflazioaren igoera eta Trumpen administrazioaren zerga-jaitzierak eman lezakeen laguntza kontuan izanda, oso litekeena da FEDek aurten tasa ofizialak igotzeko prozesua bizkortzea, eta dagoeneko hasiak dira 2018an lau igoera izango direla deskontatzen, hiruren ordez. Atlantikoaren beste aldean, EBZren akte adierazten duten tonua ez da hain moldakorra, Europako ekonomiak lortutako sendotasuna aitortzen dute eta inflazioa pixkanaka oneratzu joateko konfiantza azaltzen dute, azkeneko datua motelxeagoa izan arren. Draghik, gainera, egonezina erakutsi du euroaren azkenaldiko sendotasunaren aurrean, Trumpen administrazioak bultzatutako dibisa-gerra bat iradokiz. Bestalde, urtearen hasiera ere ez da egon gertaera geopolitikoetatik erabat libre, baina ez dute garrantzi berezirik izan merkatuentzat. AEBk lortu du, aldi baterako bederen, gobernu-administrazioaren itxiera saihestea, aurrekontu-akordio berantiar baten bidez, eta Europa aldean Kataluniako ezegonkortasuna ez da konpondu eta Alemaniak martxan jarri du gobernu berriaren erakuntza, Frantziak lagunduta, Europaren erakuntzari bultzada berri bat emateko balio lezakeena.

ERRENTA ALDAKORRA

Burtsa-merkatuei mesede egin die hazkunde ekonomiko globalaren sendotasunak piztu duen optimismo-giro orokorrak. Gainera, enpresen emaitzen bolada ere lagungarria izan da, espero zenaren gainetik eman dituen sorpresek (AEBn batez ere, hango argitalpena aurreratuagoa baita) eta horrek eraman ditu burtsak adituek urte-hasiera positiboa iragarri idatzitako gidioa betetzera. Hala ere, hilabetearen azkeneko zatian errenta aldakorraren adierazleek merkatuko beldur batzuk gainditu behar izan dituzte, amaierako emaitza ona lausotzea eragozteko: dibisa-gerra berpizteko arriskua (dolarren eta euroaren artean oraingoan), bonuen errentagarritasunen igoera garrantzitsua eta balorazio handiak, hasiera batean konpainien emaitza onen bermea dutenak baina noizean behin goi-altuerako gaitza sorrarazten dutenak. Horrekin guztiarekin, oso modu positiboan amaitu dute hila merkatu globalek, Wall Street-en batez ere, azkeneko urte hauetan erakusten ari den tonu onaren bideari jarraituz, %6 inguruko igoerarekin adierazleetan. European, %3 inguruko irabaziaz erregistratu ditu Eurostoxx indizeak eta Ibexak 2011tik honako abiorik onena izan du, %4,06ko igoerarekin. Asian, Nikkei japoniarrak %1,4 apal bat lortu du, merkatu emergenteek lortu dituzten igoera nabarmenen ondoan, horien artean aipamen berezia merezi dutenak Brasilgo burtsaren %11 eta Txinakoaren %10, herrialde horretako ekonomiak lortu dituen datu onei esker maximo historikoen eremuan sartuta.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	2018ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	10.451,5	EUR	%4,06
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.609,29	EUR	%3,01
S&P-500	AEB	2.823,81	USD	%5,62
DOW JONES	AEB	26.149,39	USD	%5,79
NASDAQ 100	AEB	6.949,99	USD	%8,65
NIKKEI-225	JAPONIA	23.098,29	JPY	%1,46
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.254,59	USD	%8,30
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.213,238	EUR	%5,22

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOIA

Seguruentzat jotzen diren bonuen prezioek urteko zuzenketa handienarekin itxi dute urtarrila, agintari monetarioek pixkanaka pizgarriak erretiratzeko asmoa dutela deskontatuta. Interes-tasak gorantz doitzea (kontuan izan bonuen prezioaren mugimendua alderantzizkoa izaten dela) garrantzitsua izan da Ameriketako 10 urterako bonuarentzat, %2,4tik %2,73 pasatu baita. Alemaniako epemuga berekoa %0,69raino igo da, hasierako %0,42tik. Herrialde periferikoetako zorrak, berriz, hobera egin du eta Alemaniarekiko diferentzialak murriztu ditu. Espainiako 10 urterako bonuaren kasuan zehazki, interesa %1,55etik %1,41era pasatu da, Fitch agentziak Espainiari eman dion kreditu-kalifikazio hobeari esker. Horrekin, urtearen lehenengo hilabete honetan arrisku-prima 115 puntutik 73 punturaino beheratu da.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	2018ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,33	0,00
	6 HIL.	-0,28	-0,01
	12 HIL.	-0,19	-0,01
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,53	0,10
	5 URTE	0,10	0,31
	10 URTE	0,70	0,27
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,36	-0,01
	5 URTE	0,40	0,00
	10 URTE	1,43	-0,14

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Dibisa-merkatua dolarrak moneta nagusien multzoarekiko erakutsi duen ahultasunak markatu du. Dibisa amerikarrak G-10 taldeko dibisa guztiekiko galdu du balioa, batez ere Norvegiako monetarekiko (%6,55) eta libera esterlinarekiko (%5), baina baita euroarekiko ere (%3,6). Hain zuzen ere, Europako dibisarekiko %14tik gorako balio-galera metatu du dagoeneko, urtarilaren itxierako 1,243\$/eur-ko kanbioarekin eta hiru urtetako minimoetara iritsita.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg